

MENDIZALETASUNA

MODA BERRIEN ERRITMOAN



LARRUN#263

KORRIKALARIAK ARI DIRA BIDEA MARKATZEN

EGILEA | **JON TORNER ZABALA**

AZALA | **JOSEBA LARRATXE, JOSEVISKY**

Eseri lasai” idatzi du norbaitek, Larre eta Ipuliño artean dagoen egurrezko eserlekuan, Uzturreko mendilerroan. Intentzio-adierazpena. Duela hamar bat urtetik, eta gogotik estutu gaituen pandemia zerriaren erdian bereziki, mendia arnasmune bihurtu da geroz eta jende gehiagorentzat. Gazteak dira asko, sasoi puntu ederrean daudenak eta basahuntzen antzera korrika dabiltzanak “atletismo pista” bihurturiko bideetan, eskola zaharreko zenbaitek dioten moduan, ez hainbeste kritika gisa edo joandako garaiaik autentikoa-goak zirela aditzera emateko, mendizaletasunak bizi duen aldaketaren testigantza bezala baizik.

Ez da erreportaje honen asmoa –gezurretan

ariko ginateke gainera– mendizaletasunari lotuta dagoen filosofia –“kultura” ere dei diezaiokegu– erabat desagertu eta gaur egungo gizarteak ikurtzat dituen abiadurak, indibidualismoak eta lehiakortasunak bidezidor guztiak hartu dituztela demostratzea, ez bada teknologiak edota mendi lasterketek izan duten eragina aztertzea.

Juanjo Garbizuk, *Monterapia* eta *Slow Mountain* liburuen egileak, mendian patxadaz ibiltzeak gorputz eta arimari dakarzkion onurez hitz egin digu. Tolosako Alpino-Uzturre, Azpeitiko Lagun Onak eta Zumarraga-Urretxuko Ostadar taldeetako kideekin ere izan gara, mendizaletasunak bizi duen eboluzioaren isla direlako urteotako bizipenak.

LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA · ARGIAren 2.734 zenbakiarekin banatua.

JABEA: KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

POSTA ELEKTRONIKOA: LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA

2021eko maiatzaren 30a

Azken 30 urteetan mendizale-letasunak izan duen eboluzioa ulertzeko mugarri direnak xehe-xehe aipatu dizkigu Aitor Oiarbidek, Alpino-Uzturre klubeko presidenteak. 1990eko hamarkadan mendiari buruzko informazio gutxi zegoen –mapa eta liburu batzuk salbu–, eta paraje berriak ezagutu nahi zituenak herriko elkartera jotzen zuen. Internet heldu zen arte, 2000 inguruan. Apurka-apurka mendi txangoen inguruko geroz eta informazio gehiago eskura genezakeen etxetik atera ere egin gabe. Nahi beste argibide, argazkiak, mapak... Hamar bat urte geroago poltsikoan eraman genezakeen material hori guztia, hatz bakarrarekin kontrola dezakegun telefonoan, zeinak baidaukan mendizalelasuna ere errotik

aldatu duen zerbitzu iraultzaile bat: Kokapen Sistema Globala edo GPSa.

Denborarekin izugarri zabaldu ziren nork bere *track* edo ibilbideak –eta markak– sarera igotzeko aplikazioak, Wikiloc eta Strava esaterako. Jende askok erabiltzen ditu etxetik atera aurretik –ibilbidea planifikatzeko–, mendian doazenean –bide zuzena dela egiaztatzeko edota denborak neurtzeko– eta behin txangoa amaituta, sare sozialekin konbinaturik, informazio hori edonoren esku uzteko eta, batzuen kasuan, egindako balentria lau haizetara zabaltzeko, *like* sorta biltzea helburu. “Postureoa” deitzen diote.

Sare sozialekin oso lotuta dago 2010aren bueltako mendi lasterketen booma, gazte mordoa erakarri eta “lehia” mendian ere sartu

zuen, Oiarbidek dioen moduan. Eta loraldi horrek ekarri du mendiko materiala izugarri eboluzionatzea arintasun eta segurtasunari dagokienez, mendizalelasunak bizi duen transformazioaren erakusleiho.

Bien bitartean, ia denok irabazten dugu autoa erosteko adina diru, ez bada furgoneta edo autokarabana. Eta eraiki dizkigute mendi magalera amen batean eramango gaituzten errepideak, garai batean ez zegoenean beste modurik garraio publikoan edo mendi taldeek antolatutako autobusetan bidaiatzea baino. Hiruzpalau egun behar ziren Pirinioetan tontor bakarra igo eta etxera bueltatzeko, eta horrek derrigor markatzen zituen mendizaleen erritmo eta filosofia.

“ESERI LASAI”

Berastegi aldean, arnasa sakon hartu eta inguruaz goatzeko gonbita luzatzen digu Larre eta Ipuliño mendien artean dagoen eserlekuak. Handik hurbil bada egurrezko mahai bat, esaldi bera duena idatzia. Bi hitz besterik ez dira, baina mundua biltzen dute.



MENDIA, ENTRENAMENDU-PISTA

“Guk nahi bagenuen mendian ahalik eta denbora gehien eman, ahalik eta gutxien pasa nahi du orain jende askok”. Ostadar taldeko Juan Mari Gabilondo *Txibis*, Manuel Iraola, Jose-rra Lanberri eta Luis Albisua garai zaharrez ari dira. “1960-70 urteetan Aneto igotzeko lau edo bost egun behar genituen. Altsasu edo Iruñe-rra trenez joaten ginen, zelai batean lo egin, hurrengo egunean Benasquerantz, biharamunean aterpera oinez, gero tontorrera... Orain ia denok dugu autoa, edo autokarabana bestela; eta kristoren errepideak daude. Jendeak mendi bat igo eta jaisten du egun berean, gaua furgonetan eman eta hurrengo egunean agian beste tontor bat igoko du. Nor kristok egiten ditu gaur egun 10-12 orduko ibilaldiak motxila handi bat bizkarrean duela? Guk apenas begiratzen genion ordulariari”. Ezin zuen bestela izan, gainera.

Abiatu aurretik etxeko-lanak zintzo egitea komeni zen: gidak eta mapak aztertu, ibilbidea erabaki... “Prestakuntzaren erotika”, *Slow mountain* (Diéresis, 2016) liburuaren egile Juanjo Garbizuk dioen moduan. “Orain ez dugu ez denbora ez gogorik horretarako. Mendia ukitu erromantikoa galtzen ari da eta pena ematen dit. Hura errespetatzen duen orok du esku-bidea bertan nahi bezala ibiltzeko, baina harritu egiten naiz ikusten dudanean korrikalari batzuk tontorrera heltzearekin bat maldan behera abiatzen direla, hain gauza ederra izanik gailurrean lasai egotea. Iruditzen zait lasterka dabilen pertsona hori mendizalea baino atleta dela”.

“Mendia entrenamendu-zona bihurtu da”, dio Oiarbidek. “Ingrune erakargarria da eta normala da geroz eta jende gehiago ikustea korrika, azken urteotan sortu diren lasterketen abaroan. Ona da dene-

tarik egotea”. Azken finean, pertsona beste arrazoi dago inor mendira bultzatzeko, zerbaiti ihesi eta zerbaiten bila denbora berean, nork bere burua egokitu behar du: ibilaldi luze ala motzagoak, bide erraz edo teknikoagoak, eskalada, eskia, korrika, bizikletan...

Azken hamabost urteetan aldaketarik handienak heldu dira batetik teknologiaren eta bestetik korrikalari eta mendiko eskian dabilen eskutik, Alpino-Uzturreko presidentearen hitzetan. “Lasterketek gazte ugari erakarri eta lehiakortasun puntu hori mendira ere eraman dute, orain gutxi arte hain agerikoa ez zenean”. Garai batean ere egiten ziren astakeriak, distantzia oso luzeko zeharkaldiak, artzainen arteko korrika apustuak... Eta gezurretan ariko ginateke goi-mendietan ego edo interes borrokarik gaur arte sekula izan ez dela esango bagenu. Baina joera berriek beste dimentsio batera



eraman dute *Citius, altius, fortius* (Azkarrago, altuago, indartsuago) lema olinpikoak biltzen duen lehiakortasuna. Ostadar taldeko Luis Albisuak esan digu duela 20-30 urte bera ere aritzen zela korrika, baina entrenamendu moduan –“Pirinioetara fuerte joateko”–; berez ez zen hori helburua. “Beteranoagoentzat, mendian lasterka aritzea bekatu mortala zen”.

“

**ALDAPAN GORA BALDIN
BAGOAZ BEGIAK
BOTA BEHARREAN,
OKER-OKER EGINDA
LURRERA SO ETA GURE
ARNAS KOLPEAK
BESTERIK ENTZUTEN EZ
DITUGULA, INGURUKO
PAISAIA, SOINU ETA
USAINIK EZ DUGU
XURGATUKO”**

JUANJO GARBIZU

“*Slow Mountain* terminoarekin ez dut aditzera eman nahi dortoken moduan ibili behar dugunik, baizik eta gauza bakoitzari bere denbora eskaintzeak eragin terapeutiko positiboa duela”, dio Garbizuk. “Aldapan gora baldin bagoaz begiak bota beharrean, oker-oker eginda lurrera so eta gure arnas kolpeak besterik entzuten ez ditugula, inguruko paisaia, soinu eta usainik ez dugu xurgatuko. Ordulariaren menpe goazenean segundo edo minutuak lapurtzeak besterik ez gaitu asebeteko funtsean. Hirian geroz eta arinago gabiltza eta mendira goazenean ez gara gai barrenak lasaitu eta mantsoago joateko”.

“KILIAN EFEKTUA”

Lehiakortasunak ekarri du materiala izugarri garatzea, fabrikatzaileek pagotxa topatu dutelako; eta hori mendizale guztientzat da ona, produktu berriek segurtasun aldetik ere asko eboluzionatu baitute: labain ez egiteko zoladun zapatilak, kranpoiak, pioletak, eskia praktikatzeako materiala... Urtetik urtera aurki ditzakegu produktu orduan eta hobeak. Eta arinagoak. “Oso jende gutxi ikusiko duzu gaur egun mendiko botekin”, diote Ostadarrekoek. “Minimalismora jotzen da. Zapatila bereziak, motxila txikia, zira nano bat... Eta berdin jatekoarekin, barra energetikoak eta beste”. Garbizuk alderatzen du gimnasio batean topatuko genukeenarekin: “Energia txute bat sartu eta aurrera”.

“Jendeak kristoren materiala du”, mintzo zaigu Lagun Onak klu-

beko kide Aitor Unanue: “Azpeitiar batek Erlotik argazkia bidali zidan neguan, elurretan, kranpoiak oinetan, pioleta, puntako materiala... Zer eta Erlora igotzeko?! Agian min hartzeko aukera handiagoa duzu horrela jantzita, bestela baino”. “Joxe Urbietta *Takolo* Everestera gutxiagorekin joan zen”, esan digu Josu Izagirrek, 1980ko espedizioa gogoan. Eta Unanuek gehitu: “Benantxiok ere serio-serio esaten zigun, Everesteko kanpaleku nagusian baino txamarra hobeak ikusten zituela tabernetan, txikiteoan zegoela. Material aldetik arazorik ez du jendeak; zuzen erabiltzea da kontua”. 2013an hil zen Benantxio Irureta, Aneton.

Garbizuren hitzetan, sare sozialak dira joera berrien aliatu nagusietakoak: “Kirolariek, material fabrikatzaileek eta hedabide es-



JUANJO GARBIZU UTZIA

JUANJO GARBIZU Ausa Gaztelun (Aralar), atzean Txindoki duela. *Monterapia* eta *Slow Mountain* liburuen egileak, Euskal Mendizaleen Federazioak sustatzen duen ‘Ehun mendien lehiaketa’ du eredutzat. Bost eta hamar urteko epean 100 mendi igo behar dira, ibilaldi bakoitzean bakarra baino ez, eta urtean gehienez hogeit. “Presarik gabe ibiltzea gonbidatzen gaitu”.

pezializatuek igotzen dituzten bideoek tendentzia markatzen dute. Mendira hurbiltzeko modua eta baliatutako ekipamendua izugarri aldatu dira 1980ko hamarkadatik gaur arte. *Trail* zirkuituek eta *ki-lometro bertikala* deituek –lehiarekin lotutako modalitateek– jende berria erakarri dute; haientzat mendia da zirkuitu bat, zirkuitu eder bezain gogorra”. Slow Mountain liburuaren egileak “Kilian efektua” deitzen dio: “Hura idazten hasterako konturatua nintzen aldizkari espezializatueta, *Pyrenaica*-n esaterako, *ultra trail* lasterketek espazio geroz eta zabala goa betetzen zutela, bisualki indar handikoak direlako. Horrek, noski, izugarri erakartzen ditu material fabrikatzaileak. Promozio-bideo batean erakusten baduzu Kilian Jornet Mont Blanc-eko Innominata ertzean egurrean, dron batekin grabatua kamera geldoan... Irudi txundigarriak dira”.

“Nik Kilian miretsi egiten dut!”, esan digu, kataluniarrari buruz galdetu diogunean. “Pertsona aparta da, eta kirolari itzela, bere modalitatean Nadal edo Messi baino hobea. Baina pertsonaiak pertsona akabatu duela iruditzen zait... *Path to Everest* dokumentalean kontatzen du nola une batean presio mediatikoagatik hondoa jo zuen, berak gus-tuko duena ez baita korrika egitea eta bake santuan laga dezatela besterik. Egungo gizarte kontsumista eta mediatikoaren isla da. Begira, duela gutxi arte bi arropa denboraldi zeuden: udaberri-uda eta udazken-negua. Eta orain sei ere badira! ‘Erabili eta bota’ kontsumoa da, eta mendizaletasunak horretara jo du hein batean”.

Kilian Jornetek idatzi du, hain justu, *Iker Karrera. Bidea ipar* (Unai Ugartemendia. Desnivel, 2020) el-karrizketa-liburuaren hitzaurrea. Amezketako mendi-korrikalaria zintzotasun handiarekin mintzo da



TEKNOLOGIAK, GPSak bereziki, mesede handia egin dio mendizaleari. Gailu eta aplikazio berriek ordea segurtasun sentipen faltsua ere eman dezakete, eta jendea bultzatu ausartegi jokatzen.

urteotan bizi izandakoez. Pasarte batean halaxe dio Karrerak: “Beti iruditu izan zait mendiko lasterketak oso desorekatuta daudela beste kirolekin alderatuta; alegia, alde

tolatzaileez, markez, aldizkariez edo sare sozialez ari naiz. Inguruan honetatik bizi den jende kopurua askoz handiagoa da korrikalariena baino, eta hori kirol baten osasunerako eta etorkizunerako arriskutsua iruditzen zait”. Eta apur bat aurreraxeago, Garbizuren hitzak berresten dituen aipua: “Inoiz ez naiz eroso sentitu sareetan, baina aitortu behar dut mendiko lasterketen hazkundera oso lotuta dagoela sare sozialek. (...) Nire irudipena zen arduradunek ez ziotela gure egutegiari horrenbeste begiratzen, eta gehiago erreparatzen ziotela bakoitzak sareetan zuen jarraitzaile kopuruari”.

“Oraindik ere bitxia egiten zait inguruko parajeetan, Aralarren edota Aratz-Aizkorin, *trail* estazio edo zirkuituak ikustea, konpetizio kirolekin lotzen ditudan neurrian”, jarraitu du Garbizuk hizketan. “Gisa horretako azpiegiturek tokiko ekonomia suspertzen lagun dezakete, baina... Korrikalarien kontra ez dut ezer, halere, ez bada mendian uzten dituzten orbainengatik, nahia-go dutelako ‘zeta’ bat egin ordez lehen biderik ez zegoen lekuetatik zuzen-zuzen igotzea, segundorik ez galtzeko alferrik”. Nazioartean ere erreferentzia bilakatu den Ze-



**MENDIA
ENTRENAMENDU-ZONA
BIHURTU DA. INGURUNE
ERAKARGARRIA DA ETA
NORMALA DA GEROZ
ETA JENDE GEHIAGO
IKUSTEA KORRIKA, AZKEN
URTEOTAN SORTU DIREN
LASTERKETEN ABAROAN.
LASTERKETEK GAZTE
UGARI ERAKARRI ETA
LEHIAKORTASUN PUNTU
HORI MENDIRA ERE
ERAMAN DUTE”**

AITOR OIARBIDE
ALPINO-UZTURRE

handia dagoela kirol honen inguruan mugitzen direnek eta korrikalariak irabazten dutenaren artean. Ingurukoak esaten dudanean, an-

gama-Aizkorri lasterketa faktore inportantea da “korrikaren modari” dagokionean, solaskideen hitzetan.

BILDUMA HANDITZEA HELBURU

Ez dakigu gaztelaniazko *tachicimas* terminoak euskarazko balio-kiderik ba ote duen. “Tontor ezabatzaille” datorkigu burura, mendiak igo ahala haien izenak zerrendatik kentzen dituen pertsona definitzeko. Garbizuk maiz baliatzen du termino hori: “Ahalik eta gailur gehien metatzea du helburu mendizale askok, tiraldi bakarrean bizpahiru kateatzea. Ez da soilik kalitate kontua, kantitateak ere balio handia du. Miquel Capdevilak badu liburu bat, Pirinioetako hiru milako guztiak 30 egunetan nola igo azaltzen

duena. Belaunaldi gazteen artean hiru milakoak igotzeko (*tresmilitis* terminoa erabiltzen du berak) grina pizten dute horrelakoek, eta edertasun handiko mendi apala-goak bazterrean uzten dira”.

“Noski sekula igo gabeko gailurretara joan nahi genuela, zenbat eta altuagoak hobeto, 2.000 metro, 3.000... eta inguruan lau milakoak baleude, hara joango ginatke”, kontatu digute Ostadarrekoek. “Perdido igo nahi genuen, Aneto... Baina esan dugu lehen, egunak behar genituen Pirinioetako tontor bat igotzeko”.

“Badirudi ‘mendia’ eta ‘tontorra’ banandu ezinak direla, zeharkaldi zirkular ederrak egin daitezkeen gailurrik zapaldu gabe”, dio Garbizuk. “Jende bat, gainera, ton-

torrean geratu ere ez da egiten; igarobidea da, ez besterik, lasterketa bateko anoa-postua bailitzan. ‘Igoera metatua’, ‘desnibela orotara’... bezalakoek geroz eta garrantzia handiagoa dute, kirolariek hor aurkitzen dute plazera”. Askok plazera aurkitzen duen bezala sare sozialetan. Berak ere baliatzen du Facebook, irakurleengandik hurbilago egoteko; eta Youtube, mendian grabatzen dituen bideoak zabaltzeko. Baina nonon irakurri zuen esaldi bat du gogoan beti: “Ez ezazu mendia igo mundu osoak zu ikus zaitzan, zuk mundua ikus dezazun baizik”. Beste gomendio bat ere eman digu: mendiaz patxadaz gozatzeko trikimailuetako bat da tartean behin argazkiak atera eta bideoak grabatzeko geratzea.



AITOR OIARBIDEK UTZIA

ALPINO-UZTURRE klubeko kideak Orhi mendian. Ezker partean, lurrean eserita, kamiseta urdina jantzita ageri da Aitor OiARBide. Hilabeteotan txangorik ez dute antolatatu, baina bazkide kopuruak gora egin du [600 baino gehiago dituzte orotara], eta OiARBide ziur da orain batu diren batzuk pandemia amaitzean ere eutsiko diotela afizioari.

Aldaketa orok dakar mesfidantza

Mendizaletasuna etengabe ari da aldatzen, eboluzionatzen. Modalitate batzuk zientzia fikziozkoak irudituko litzaizkiguke duela urte batzuk. Mendiko eskia, muturrekoa, bakarkako eskalada anbiziotsuak, bulderra, arroi jaitsiera, ala deltan hegaldiak... Eta 1985ean, Himalaiako maratokia, non parte-hartzaileetako asko mendiaren mundutik zetozen”.

Pyrenaica aldizkariaren 1986ko 144. zenbakian publikatutako erreportaje batetik hartu ditugu hitzok. Casimiro Bengoetxea eta Jesús Mari Alquezarren sinadura zeraman, eta izenburutzat: *Correr por el monte... ¿Por qué no?* (Mendian korrika... Zergatik ez?).

“Mendian lasterka egin dizkiagun abenturak kontatzea, etzekiat ba, beldur apur bat ematen zidak”, zuzentzen zitzaion bata besteari. “Ez al haiz akordatzten *Pyrenaica* -ren azalaz, gizon bat galtza motzetan eskalatzen agertzen zuan hartaz? Mordoxka bat ‘zuzendariari gutun’ heldu zituan, hura ez zela mendizaletasuna, zirkuan hobe legokeela... Eta orain, zer eta mendian korrika aritzearen kontuarekin gatozek gu biok... Duela gutxi, ez al huen hik proposatu ibilaldien egutegiko mendi-irteeretako bat oinez eta korrika osatzea? Eta, zer pasa zuan? Antzarrak ferratzera bidali hinduten...”.

Juanjo Garbizu *Monterapia* eta *Slow mountain* liburuen egileak dioenez, “mendiaren mistizismo klasikoari desafio egin zion artiku-

lu horrek”. Edonola ere, erakusten du lasterka aritzearena ez dela fenomeno berria, ezta jarduera horren inguruko ikuspuntu desberdinen plazaratzea ere, nahiz eta garai hartako korrikalariak bestelako filosofiarekin heltzen zioten erronkari, erreportajea irakurri daitekeenez: “Mentalizatu behar gara hau ez dela lasterketa herrikoi bat, ezta konpetizioa ere, eta helburua ez dela errekorrik haustea. Patxadaz hartu beharra dago. Gelditu egingo gara paisaiak merezi duenean, goizeko behe-lainoak gaintiztean edota haran batetik bestera eramango gaituen lepora heltzean. Ez dugu presarik izango. Helburua ez da markak haustea, ordulariaren kontra aritzea”.



Egin dezagun orain denboran atzerago, 1950-60 urteetara, Dino Buzzati kazetari italiarrak idatzita-koak gogora ekartzeko. Gaztelaniaz ere aurki daitekeen *I fuorilegge della montagna* kronika-liburu ederrean jasotako artikulua irakurrita, jabetuko gara jarduera berriekiko lilura eta era berean mesfidantza denboran errepikatzen diren osagaiak direla. Baita mendira bultzatzen gaituzten motiboen eta "berezkoa" duen filosofiaren ingurukoak ere.



“ Osperik eta loriarik gabe-ko gailur haien gainean, zeintzuen izenak ez baitien zuen adiskideei ez harridura ez laudoriorik eragingo, ezein lehiaketak sekula kutsatu ez dituen gailur zaharren gainean, hantxe izango zarete ziur aski zoriontsu, jakin gabe ere”. / **1948**

“ Milanen, hainbat jenderi entzun diogu esaten: ‘Noiz geratuko dira? Zergatik ez dituzte behingoagatik horrelakoak debekatzen? Zer ekarpen egiten die eskaladaren kontu ero honek? Onargarria al da bizpahiru pertsonaren kapritxo burugabe batengatik hainbeste sorospen-ekipo, helikoptero eta mediku mobilizatzea?’. Izan da gaiztoago mintzatu denik ere: ‘Ez hasi gero mendiarekiko pasioaz hitz egiten. Hau ez da handikeria besterik, jendeak norberaz hitz egiteko desioa, norberaren izena egunkarian ikusteko irrika’ (...) Onartu dezagun, ordea. Erronka geroz eta zailagoak bilatzen dituzten pertsonak behar ditugu. Gaixoak gu, existituko ez balira”. / **1961**

“ Nahiago nuke nire bizitzako mendia ospetsuagoa balitz; erraldoietako bat, zer dakit nik: Civetta, Jorasses Handiak, Gaurishankar... Cervino ez: arruntzia litzateke. Schiara, egiari zor, apur bat probintzianoa da. Jendartean ez du erreaxiorik eragiten. ‘Schiara-ko pareta eskalatu dut’. ‘Zer? Nola? Non? Inork ere ez zuen hari buruz deus entzun’. / **1964**

“ Sufritu al du mendiak? Pentsa dezakeguna baino askoz ere gutxiago, egia esateko. Bai, paretak konkistatuak izan dira, baina... Hain handiak dira! (...) Bizpahiru kordada igarotzeak ez du ezer aldatu. Bitarteko artifizial gehiegi

baliatzeagatik haserretzea neurri batean justifika daitekeen arren (azken urteetan, iltzeak sartzeko pitzaduraxorik ez zegoen lekuetan, zuloak egiten ziren punteroarekin), beste garai batzuetako estilo ‘garbiaren’ nostalgia, funtsean, gehiegizkoa da pentsatzen badugu muturreko funanbulistak erlatiboki gutxi garela”. / **1950**

“ Egun on’. ‘Egun on’. Mendian topo egiten duen jendearen arteko ohiko agurra zen, kortesia keinua, gaur egun, auskalo zergatik, geroz eta gutxiago praktikatzen dena”. / **1963**

“ Mendiak zergatik eragiten dute hainbesteko lilura? Zein ezaugarriak egiten dituzte hain berezi? Bi bereizten ditut nik, bere lur malkartsuak eta bere mugiezintasuna. Ezbairik gabe, bigarrena da garrantzitsuen. (...) Arrazoia, nire ustez, gizakiak erabateko baretasuna bilatzeko duen joera da. Zertan saiatzen da jendea gau eta egun? Zertarako egiten du lan, dirua egin, ospea eta boterea bilatu, ez bada egun batean hainbeste esfortzuren emaitzaz gozatu ahal izateko, hainbeste konpromiso eta loturetatik erabat libre egoteko eta atsedean hartzeko? (...) Gizakiak, oharkabean, gelditasuna konkistatzeko joera du. Eta horregatik hain zuzen ere, mendiak, egoera horren eredu perfektuak, konplazentzia sentipena eragiten dio”. / **1971**

Bakarrik ala konpainian?

Mendira bakarrik ala lagun edo familiarekin joan, esperientzia erabat desberdina da. Biek dute beren alde ona. Taldean joatean giro berezia sortzen da, zaletasun bera partekatzen duten pertsonen arteko adiskidetasun aliantza. Bakarrik goazenean, aldiz, esperientzia askoz ere introspektiboagoa da, intentsua, soilik geure buruarekin hizketan, auskalo zer konturi buruz pentsatzen. Geroz eta ibilaldi luzeagoak, bakarrikzeta are sakonagoak, Juanjo Garbizuk dioen moduan. "Pirinioetan zortzi ordu daramatzazunean beste mendizalerik ikusi gabe... Autokontrol handia izan behar da. Mugikorra duzu, GPSa ere bai, baina egoerak gain hartu diezazuke unereren batean. Konfiantza denborarekin irabazten da. 'Proba-akatsa' da, ez dago besterik, bizitza bera bezala". Dioenez, gaur egungo gizartearen gaitz handienetakoa da "geure buruarekin bakarrik egoteko dugun ezintasuna", beldurra-edo emango baligu bezala, eta mendi txangoek aukera ematen dute "gabezia" hori hein batean betetzeko. "Taldean

goazenean elkar egokitu behar dugu. Bakarrik gaudenean aldiz nahi duguna egin dezakegu; zu zara zeure ekintzen jabe. Inguruari arreta handiagoarekin erreparatzen diozu, eta taldean erraz antzean gaintitu daitezkeen oztopo edo erronkek beste dimentsio bat hartzen dute. Harri batzuetatik igo beharra dagoenean, lagunekin baldin bagoaz di-da ausartuko gara agian, baina bakarrik gaudenean...".



ASIER AZPIROZ



DANI BLANCO

GALDUZ IKASI

Mintzakide guztiak bat datoz esatean teknologiak, eta GPSak bereziki, sekulako aurrerapena ekarri duela, baita eguraldiaren nondik-norakoak kontsultatu eta sorospen-zerbitzuak ohartarazteko aplikazioek ere (112 SOS Deiak, Safe 365...), jendeak ingurunea eta kanpo-faktoreak gehiago kontrolatu ahal dituelako eta egoera beltz jartzen denean denbora gutxiago behar delako mendizalea lokalizatu eta erreskatatzeko. Lehen, lagunen bat zaurituz gero herio betean jaitsi beharra zegoen aterpe edo etxeren batetik telefonoz deitzeko, hura bertan utzita.

“Eta zenbat bider galdu ote ginen!”, esan digu Unanuek: “Normalizat genuen, halere. Etxetik irten orduko bagenekien punturen batean galduko ginela”. Sasi artean gora eta behera, mendia -eta norbera- hobeto ezagutzeko aukera

ematen zuen bide zuzenetik aldentzeak, Garbizuren ustez: “Hura ere erritualaren parte zen. Miguel Anguloren liburuak zeneuzkan, baina ez dakit zein tontorrera igotzeko ibilbide osoa paragrafo bakarrean jasotzen zuen: hemendik abiatuko gara, aurrerago iturri bat dago, gero lepoa, ertza eta listo, heldu gara gailurrera. Tarteko bidegurutzeetan zer egin, aipatu ere ez. Inork lortzen bazuen tontorrera heltzea soilik liburuaren laguntzarekin, diploma bat merezi zuen. Horrela ikasten genuen, ordea. Formakuntzaren parte zen”.

Egia da garai bateko liburuek baino segurtasun handiagoa eskaintzen duela teknologiak, baina era berean gailu eta aplikazio berriekiko dependentzia handituz doa etengabe, arreta gehiago jartzearaino hamar zentimetroko pantailaren gainean, inguratzen gaituzten elementuengan baino. Segurtasun

sentipen “faltsua” eman dezakete gainera, eta jendea bultzatu ausartegi jokatzerara.

ARDIAK BEZALA, ARTZAINARI MEN

“GR bat egiten ari ginen behin, arbola artean sigi-saga, orain ezkerre, orain eskuinera, ni aurretik eta taldekide guztiak atzetik”, hasi zaigu kontatzen Unanue. “Basotik irtetean, bakarren batzuk hurbildu eta galdetu zidaten: ‘Nola zenekien nondik joan?’. Bidean geziak ez zeuden ba! Guri ere gertatu zaigu hori, ordea. Pirinioetara joaten ginenean, Benantxioren atzetik beti. Hura hiltzean bagindoazen berare-

“

**BENANTXIOK
SERIO-SERIO ESATEN
ZIGUN, EVERESTKO
KANPALEKU NAGUSIAN
BAINO TXAMARRA
HOBEAK IKUSTEN ZITUELA
TABERNETAN, TXIKITEOAN
ZEGOELA. JENDEAK
KRISTOREN MATERIALA
DU; ZUZEN ERABILTZEA DA
KONTUA”**

**AITOR UNANUE
LAGUN ONAK**



JON TORNER

JOXE URBIETA TAKOLO zenari buruzko erakusketa paratu du Lagun Onak klubak bere egoitzan, taldearen 75. urteurrenako ekitaldi sortaren barruan. Aitor Unanuek, Josu Izagirrek eta Arantxa Larrañaga presidenteak hainbatetan aipatu dizkigute *Takolo* eta Benantxio Irureta herriko mendizaleen izenak, haien borondate on eta lanerako grina, klubaren jarduna laburbiltzeko.

kin igotako mendietara eta, ostia, askotan ez genekien bidegurutzeetan nondik jo. Haren emazteak esaten zigun: ‘Beste norbaitek gidatzea ohituta zaudete zuek!’. Jabetu ginen mendian arreta handiagoa jartzea komeni dela”. Josu Izagirrek ederki deskribatu du egoera: “Artaldeak bezala jarraitzen gaituzte”.

Artzain birtualak dauzkagu orain pantailatxo baten barruan gordeta, eta haiek agindutakoak

zintzo betetzen ditugu, puntutxo urdin bat mapan. “Flipatu egiten dut”, esan digu Garbizuk. “Mendizale batzuk, ezagutu ere egiten ez dituzten pertsonek igotako *track* horiengan besterik ez dira fio. Aurreko batean Aratzetik behe-
ra nindoan lagun batekin, bat-batean ezkerrentz egin zuenean. ‘Nora zoaz baina?’, galdetu nion. ‘Nire GPSak dio hemendik dela’. Nik ezetz, egiteko kasu, maiz ibilia nintzela paraje horietan. Egoskor eusten zion halere bereari, ditxosozko *track*-ak bestelakoa adierazten zuelako. ‘Ados, zure pantailako bideari jarraituko diogu’. Sasi artean ibili ginen atzera egitea erabaki zuen arte. Batzuetan itsu-itsuan jarraitzen ditugu gailu berrien aginduak, nahiz eta begiek esan beste zerbaitek behar duela hor. Teknologia baliatu behar dugu, noski, une larrietan izugarri lagun zaitzake, baina norberaren zentzumenak alfertu ere egin ditzake, orientazio-sena, intuizioa... Etengabe pantailari begira joaten bazara gauza askok egingo dizute ihes”.

ERRESKATE KOPURUA GORA

Datuek erakusten digute ustez gure ekintzengan kontrol handiagoa dugun garaiotan, ezbehar gehiago gertatzen dela mendian. Azken urteetan eta pandemia garaian bereziki mendizaletasunak gora egin duen moduan, handitu da erreskate kopurua.

EAEn, esaterako, 1996an 78 erreskate egin ziren, 2016an 115, 2018an 267 eta 2019an 331. Halaber, Ertzaintzaren Zaintza eta Erreskate Unitateak (UVR) pasa den urtarilaren 16an jakinarazi zuen 30 pertsona inguru erreskatatu zituztela hiru astetan. Datu horiek islatzen duten errealtateaz erreportajea plazaratu zuen Mikel Orbañanos kazetariak *Gipuzkoako Hitza*-n (2020-03-20). Hainbat

ZEGAMA-AIZKORRI mendi lasterketa 2002an egin zen aurrenekoz, boluntario taldeak antolatuta, herria ezagutzera emateko helburuarekin. Baita lortu ere. Garai hartan Zallakoa beste lasterketarik ez zegoen Euskal Herrian, eta Zegamako probaren inpektua izugarria izan zen. 2004rako Munduko Koparen parte zen jada, Salomon enpresakoek potentzialitatea ikusi baitzioten lasterketari. Izan duen hazkundearekin, hasierako filosofiari eusten diote antolatzaileek.



adituren adierazpenak bildu zituen, tartean Igor Lasa Gipuzkoako Goi Mendi Eskolako zuzendariarenak. Istripu asko esperientzia faltarekin lotuta daudela zioen: “Ezbeharra izaten dituzten mendizaleetatik soilik %15 dira federatuak. Behar besteko ezagupe-
nik gabe joaten da pertsona ugari mendira eta, aldi berean, ausartegi”. Eta horrek lotura du teknologiarekin, jende askok uste duelako

nahikoa dela ibilaldiaren *track*-a deskargatzea mendian arazorik gabe ibiltzeko. Uste osoa aplikazio birtualengan jartzen dugunean, utzi egiten diogu geure kabuz pentsatzeari, eta ahalmen hori galduz gero zailagoa izango da erabaki zuzenak hartzea, istripuen erdia baino gehiago “hautu okerren ondorioz” gertatzen denean.

“Mendian topatzen ditudan pertsona askok sekulako sasoi puntua



du”, kontatu digu Garbizuk. “Ez da-
kit gimnasioetatik datozelako ote
den baina ikusten dituzu eta ostia,
lehenago mendira sekula joan ga-
beak izateko kabroiek nola igotzen
duten. Mendiak ordea ezagutza bat
behar du, eta hori esperientziak
ematen du. Zeren eta pentsa de-
zakezu egun eguzkitsu batean ara-
zorik ez duzula izango, baina behe-
-lainoa sar daiteke bat-batean, edo
ekaitza lehertu. Mendiak toki ol-

darkorra izan daiteke. Eta ikusten
duzu jendea zapatila horiekin, mo-
txilatxo bat bizkarrean... Dena ongi
ateraz gero ez duzu besterik behar,
baina badaezpada ere komeni da
hobe ekipatua joatea, zer esanik ez
Pirinioetan”.

“Mendiaren fribolizazioa” aipa-
tu digu, ezusteak gorde ditzakeen
ingurunean arinkeriaz jokatzeara.
Eta hori lotzen du sare sozialen
erabilerarekin: “Ikusi besterik ez

dago nola deskribatzen diren Piri-
nioetako tontor ezagunetako asko.
25 kilometro eta 1.800 metroko
desnibel positiboa duten ibilal-
diak ‘paseoak’ dira, eta paretatzar
konplikatuak ‘edonork eskalatze-
ko modukoak’. Estresa eragiten du
horrek, ez da sana. Behin, Roya
Kanalean (Pirinioak) behera nin-
doala, aparkalekutik hurbil topatu
nituen gizon bat eta haren semea,
hondartzarako txankletak jantzita.
‘Barkatu, asko falta al zaigu lakue-
tara iristeko?’, galdetu zidan aitak.
‘Inguruan ez dago lakurik’, nik. ‘Bai,
Anayetekoak’. Anayeteko lakuetara
joan nahi ez zuten ba! Erotu ote zen
galdetu nion. Buelta emango zutela
espero dut”.

GREDOSEKO EZBEHARRA GOGOAN

2013ko martxoaren 29an, Mungia-
ko mendizale bat hil zen Gredose-
ko mendizerran (Espainia), nekeak
eta hipotermiak jota. Alpino Bilbao
taldeak antolatu zuen mendi irtee-
rako kidea zen, eta klubeko presi-
denteari, balizko arduradun gisa,
“nahi gabeko homizidioa” egotzi
zioten. Borondate oneko gidaria-
ren figura zuen akusazioak oina-
rritzat, taldearen gidaritza modu
altruistan onartzen duen pertso-
narena. Urtebete geroago haren
aurkako auzia artxibatu egin zen,
ordea, epailearen iritziz ezin zi-
tzaiolako inolako ardurarik egotzi,
ez baitzuen gidari bezala aitortuko
lukeen kontraturik sinatu.

Ezbehar hark zalaparta handia
eragin zuen instituzio, mendi fede-
razio eta klubaren artean, erantzuki-
zun zibilari dagozkion betebeha-
rrak zirela medio, eta ordura arte
irteerak “lasai antzean” antolatzen
bazituzten, guztiak beldurtu zituen
apur bat. Ostadar taldekoek esate-
rako laga egin zioten Pirinioeta-
ra bidaiatzeari. “Midi d’Ossau-e-
ta, orain berehala egingo genuke
horrelakorik! Zer arrisku hartzen

genuen... Taldekide guztiok ez genuen ez sasoi-puntu ez esperientzia maila bera eta...”.

“Ezagutzen ez genituen parajee-tara joateko kontratatu izan ditugu gidari profesionalak”, azaldu digute Lagun Onak klubekoek: “Erantzukizuna azken finean zurea da eta badaezpada ere... Bestela, izan gidari profesionala edo ‘borondate onekoa’ ez dago alde handirik”. Kontua da derrigor bete behar duela norbaitek egiteko hori eta jende askok ez duela nahi, zer gerta ere arazorik ez izateko.

AUTOBUS BIDAIETAKO IRAKASPENAK

Erantzukizun zibilaren inguruko kontuek bide eman digute mendi

elkarteen jardunaz eta etorkizunera begirako erronkez hitz egiteko. Taldean joatearen abantailetakoa bat da –edo zen– autobusez bidaiatzea, leku batean utzi eta beste nonbait jaso zaitzakeelako batetik, eta duen karga sozialagatik bestetik. Eskola onak dira klubak, adin desberdinetako jendeak ikasi baitzezake zer edo zer besteengandik. Gehien dakienak albokoari erakusten dio eta hark beste bati, transmisio-sokari segida emanez.

Zentzu horretan, ezkor xamar azaldu zaigu Ostadar taldeko Luis Albisua: “Gazteek aisialdi eskaintza hain zabala dute eskura... Haien adina banu ni ere agian ez nintzateke gurera etorriko. 1982tik naiz klubeko kide, baina izan nuen ga-

rai bat mendira pare bat lagunekin joaten nintzena, eta ez Ostadarrek antolatutako irteeretara. Zaharkituak geratu gara apur bat, badi-rudi federatu agiriak tramitatzeko besterik ez gaudela. Esaten diet gazteei anima daitezela, gu erretiratzera goazela-eta. Baina inork ez du ardurarik hartu nahi bere gain. Ez dago erreleborik”.

Talde askok pandemia garaian ez du irteerarik antolatu. Salbuespen bakanetakoa da Azpeitiko Lagun Onak, Gipuzkoako handienetakoa (urteko lehen hiruhilekoan 1.000 bazkide inguru zituen, erdia federatuak). Garai ero haue-tan ere bere jardunari eutsi dio, osasun-egoerari egokitutako ibilaldi eta lehiaketak antolatuz,



LAGUN ONAK

#GazteErronka esaterako, herriko mendietara igotzeko bide ez hain ezagunak erakustea helburu duena. “Umeentzat oso aberasgarria da taldean ibiltzea. Egitasmoa sortzeko ideia eskola batetik heldu zitzaigun. Ilusioa egin zigun, inguruko mendiekiko interesa pizten duelako eta aukera ona delako orientazioaz adibidez oinarritzkoa ikasteko”.



**MENDI TALDE BATZUK
ZAHARKITUAK GERATU
GARA APUR BAT,
BADIRUDI FEDERATU
AGIRIAK TRAMITATZEKO
BESTERIK EZ GAUDELA.
ESATEN DIET GAZTEEI
ANIMA DAITEZELA,
BAINA EZ DAGO
ERRELEBORIK”**

LUIS ALBISUA
OSTADAR

IDATZI GABEKO LEGEAK

Azken finean, ingurunea ezagutzeak dakar hura zaintzeko borondate handiagoa izatea. Horrela beharko luke behintzat. Hainbeste lagun biltzen den lekuetan, ordea...

“Aita, horiek denak ezagutzen al dituzu?”, galdetu zion semeak aspaldi, *zaharrak* parez-pare topatzen zuten edonor agurtzen zuela ikusita. Berehala ikasi zuen badi-rela idatzi gabeko bi lege mendizale orok bete beharko lituzkeenak. Mundu guztia agurtzea eta beherantz doanak lekua utzi behar diola gorantz datorrenari. “Kultura” ikasgai oinarritzkoa. “Hori dena



KILIANJORNET.CAT

galtzen ari da. Nabari da ohitura-rik ez zuen jende geroz eta gehiago dabilela mendian”, esan digu Garbizuk. “Askok, ezta aurpegira begiratu ere. Eta zaborrarena, zarrata... Batzuek bereari baino ez diote begiratzen. Gizartean nagusi den individualismoa, naturaren erdian ere bai”. Mendia barruan daramanak ia beti agurtzen du, adeitasun keinu bezala eta, jende gutxi dabilen lekuetan, gainerako mendizaleek ikusi dutela ziurtatzeko, zer gerta ere. “Konplizitate puntu hori inportantea da”, diosku Oiarbidek, “niri gogorra egiten zait ez agurtzea”.

Unanuek bidezain moduan egiten du lan Gipuzkoako Diputazioan, bazterrak garbitzen. Pasa den neguan Urrakira joan zen elurra kentzeko makinarekin. “Autoak zeuden alde bietan aparkaturik, bidea oztopatzen. Guk mugitzeko eskatu, anbulantzia batek-edo pasa behar bazuen lekuri ez zegoelako, eta jendea oilartu ez zitzaigun ba! Batzuek autoak sartzen dituzte baserrietako belardietan. Aizu, nekazariak simaurtzeko intentzioa

badu zer? ‘Mendia guztiona da’ esaten dizute”.

Arazoak sortzen dira “guztiona” baino, jendeak pentsatzen duenean mendia “norberarena” dela, gizarteko beste esparru batzuetan gertatzen den bezalaxe. Azken finean, mendizaletasunaren eboluzioa ez dago ulertzerik jendartean ematen diren aldaketak aintzat hartu gabe, nahiz eta, hainbat lagunek defendatzen duen moduan, beharko genukeen mendiaz bareago gozatu, egunerokoak dakarren estres puntu hori alboratuta. ●

GALDETEGIA

Erreportaje honetan idatzitakoen harira, mendira oinez edo korrika joateko ohitura duen dozena bat pertsonari hainbat galdera egin dizkiogu, berdinak guztiei. Interneteko bertsioan jasoko ditugu inkestaren emaitza orokorrak.

Artikulu hauek erositako
ekarpen ekonomikoa
egingo diozu

Bilboko Mbolo Moya

Doole elkarteari.

Atera aldarria kalera
euskaraz eta wolofez!

24€

Amul been nit ku leegalul

inor
ez
da
ilegala

ARGIA eta MBOLLO MOYE DOOLE ELKARTEA

Amul been nit ku leegalul

inor
ez
da
ilegala

ARGIA eta MBOLLO MOYE DOOLE ELKARTEA

Amul been nit ku leegalul

inor
ez
da
ilegala

ARGIA eta MBOLLO MOYE DOOLE ELKARTEA

Amul been nit ku leegalul

inor
ez
da
ilegala

ARGIA eta MBOLLO MOYE DOOLE ELKARTEA

Amul been nit ku leegalul

inor
ez
da
ilegala

ARGIA eta MBOLLO MOYE DOOLE ELKARTEA

Amul been nit ku leegalul

inor
ez
da
ilegala

ARGIA eta MBOLLO MOYE DOOLE ELKARTEA

8€

15€

Eskaerak egiteko:

943 37 15 45

argia.eus/azoka